



Lehendakaria/Presidente  
Juan Ramón Ciprián Ansoalde

**Resolución 6/2020 ebazpena**  
Recurso 3/2020 errekurtsua

Kidea/Vocal  
M<sup>a</sup> Aranzazu Arana Learte

Idazkari-Kidea/Vocal Secretaria  
María Yeregui Hernández

ALTEL SLU enpresak Gobernantza Departamentuko foru diputatuaren maiatzaren 14ko 780/2020 Foru Aginduaren aurka jarritako kontratazio arloko errekurtsu berezian (agindu horren bidez, AMPER SISTEMAS SA enpresarekin DMR Tier III irrati komunikazio mugikorren sarea hornitzeko, abian jartzeko eta mantentzeko esparru akordioa [X19018 espediente] amaitzea ebatzi zen), Kontratuen inguruko Errekurtsoen Foru Auzitegi Administratiboak, adierazitako datan eta goian aipatutako kideak bertaratu direnez, aho batez hartu du honako erabaki hau.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por ALTEL SLU contra la Orden Foral 780/2020, de 14 de mayo, de la Diputada Foral titular del Departamento de Gobernanza, por la que se resuelve concluir con la empresa AMPER SISTEMAS SA el acuerdo marco para el suministro, puesta en marcha y mantenimiento de la red de radiocomunicaciones móviles DMR Tier III (expediente X19018), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

## AURREKARIAK

**LEHENENGO.-** 2020ko ekainaren 5ean, ALTEL SLU sozietateak ebazpen honen idazpuruan aipatutako foru aginduaren aurkako kontratazio arloko errekurtsu berezia jartzeko idazkia sartu zen Auzitegiaren erregistro elektronikoa; errekurtsu hori 3/2020 zenbakiarekin erregistratu zen.

**BIGARREN.-** Ekainaren 8an, Auzitegiak Gobernantza Departamentura bidali zuen errekurtsua, eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 56.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio espediente eta dagokion txostena eskatu zizkion. Hori guztia ekainaren 16an jaso zen Auzitegian.

**HIRUGARREN.-** SPKLren 56.3 artikulua betez, errekurtsua helarazi zitzaion AMPER SISTEMAS SA adjudikaziodunari eta baztertu gabeko gainerako lizitatzaleei, eta bost eguneko epea eman zitzaion alegazioak aurkezteko.

## ANTECEDENTES DE HECHO

**PRIMERO.-** El 5 de junio de 2020 tuvo entrada en el registro electrónico del Tribunal un escrito por el que ALTEL SLU interpone recurso especial en materia de contratación contra la orden foral referida en el encabezamiento de esta resolución; recurso que quedó registrado con el número 3/2020.

**SEGUNDO.-** El 8 de junio el Tribunal remitió el recurso al Departamento de Gobernanza y, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), le solicitó el expediente de contratación y el correspondiente informe, todo lo cual se recibió en el Tribunal el día 16 de junio.

**TERCERO.-** En cumplimiento del artículo 56.3 LCSP se dio traslado del recurso a la adjudicataria AMPER SISTEMAS SA y al resto de licitadoras no excluidas, concediéndoles un plazo de cinco días para formular alegaciones.



Horretarako emandako epean, AMPER SISTEMAS SA enpresak alegazioak aurkeztu zituen ekainaren 23an, errekurtsua ezesteko eskatuz.

En el plazo concedido al efecto AMPER SISTEMAS SA presentó alegaciones el 23 de junio, solicitando la desestimación del recurso.

TRADIA TELECOM SAU lizitatzailleak alegazioak aurkeztu zituen uztailaren 3an, errekurritutako foru agindua baliogabetzeko eskatuz.

La licitadora TRADIA TELECOM SAU presentó alegaciones el 3 de julio, solicitando la anulación de la orden foral recurrida.

**LAUGARREN.-** Kontuan harturik errekurtsu hori adjudikazio egintzaren aurka aurkeztu zela, kontratazio espedientearen tramitazioa etenda geratu da, SPKLren 53. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

**CUARTO.-** Dado que el recurso se ha interpuesto contra el acto de adjudicación, la tramitación del expediente de contratación ha quedado en suspenso en virtud de lo dispuesto en el artículo 53 LCSP.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**LEHENENGO.-** Errekurtsua laguntza produktuak hornitzeko esparru akordio bat esleitzearen aurka jarri da, guztizko balio zenbatetsia 1.587.748,80 eurokoa duena; beraz, egintza horri errekurtsu berezia jar daskioke kontratazio arloan, hala xedatzen baitu SPKLren 44. artikuluan 1.b) eta 2.c) zatietan.

**PRIMERO.-** El recurso se interpone contra la adjudicación de un acuerdo marco que tiene un valor estimado total de 1.587.748,80 euros, por lo que el acto es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1.b) y 2.c) del artículo 44 LCSP.

Errekurtsu horren berri izateko eskumena Auzitegi honi dagokio, kontratazio alorreko errekurtsuetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzeko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuaren 2.1 artikuluan esleitzen baitzaio.

La competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**BIGARREN.-** Errekurtsua SPKLren 50.1.d) artikuluan aurreikusitako epearen barruan aurkeztu da, eta SPKLren 48. artikuluan ezarritako legitimazio baldintza betetzen duen pertsona batek aurkeztu du, lizitazio prozeduran parte hartzeagatik.

**SEGUNDO.-** El recurso ha sido interpuesto dentro del plazo previsto en el artículo 50.1.d) LCSP, y por persona que reúne el requisito de legitimación establecido en el artículo 48 LCSP, por haber tomado parte en el procedimiento de licitación.

**HIRUGARREN.-** Foru Gobernu Kontseiluaren 2019ko uztailaren 16ko erabakiaren bidez, esparru akordio bat amaitzeko kontratazio espedientea onartu zen DMR Tier III irrati komunikazio mugikorren sarea hornitu, martxan jarri eta

**TERCERO.-** Mediante acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 16 de julio de 2019 se aprobó el expediente de contratación para la conclusión de un acuerdo marco para el suministro, puesta en marcha y mantenimiento de la red de



mantentzeko, bai eta administrazio klausula partikularren agiria eta preskripzio teknikoaren agiria ere, eta prozedura irekiaren bidez lizitazioa irekitzea xedatu zen.

Sei lizitatzailerik parte hartu zuten, eta horietako bat baztertu egin zuten, proposamen ekonomikoa anormalki baxua zela behar bezala ez justifikatzeagatik.

Esleipen irizpideak baloratu ondoren, kontratazio mahaiak eskaintzak sailkatzeko honako ordena hau ezarri zuen:

- AMPER SISTEMAS SA, 70,717 puntu.
- ALTEL SLU, 64,370 puntu.
- TRADIA TELECOM SAU, 61,877 puntu.
- AXION INFRAESTRUCTURAS DE TELECOMUNICACIONES SAU, 53,126 puntu.
- ADTEL SISTEMAS DE TELECOMUNICACIÓN SL, 40,262 puntu.

Gobernantza Departamentuko foru diputatu titularren maiatzaren 14ko 780/2020 Foru Aginduaren bidez, AMPER SISTEMAS SA enpresarekin esparru hitzarmena amaitzea ebatzi zen.

**LAUGARREN.-** ALTEL SLU sozietateak errekurtso berezia jarri du, eta, bertan, ebazpen hori baliogabetzeko, jarduketak atzera eramateko, enpresa adjudikazioduna prozeduratik kanpo uzteko eta esparru hitzarmena hurrengo proposamen abantailatsuenari esleitzeko eskatu du.

Dioenez, adjudikaziodunaren eskaintzak ez du bermatzen azpiegitura finkoaren elkarreragingarritasuna, preskripzio teknikoaren agiriak eskatzen duen bezala, eta, beraz, baztertu egin behar zen, baldintza agiri hori urratzeagatik. Bide Azpiegituretako Departamentuko Bide Artapeneko eta Kudeaketako Zerbitzuko telekomunikazio ingeniariak eta zerbitzuburuak berak errekurtsoari buruz egindako txostenaren arabera, preskripzio teknikoaren agiriaren arabera, komunikazio mugikor digitalen sarearen

radiocomunicaciones móviles DMR Tier III, así como el pliego de cláusulas administrativas particulares (PCAP) y el de prescripciones técnicas (PPT), y se dispuso la apertura de la licitación por el procedimiento abierto.

Concurrieron seis licitadores, uno de los cuales fue excluido por no justificar satisfactoriamente el carácter anormalmente bajo de su proposición económica.

Finalizada la valoración de los criterios de adjudicación la Mesa de contratación estableció el siguiente orden de clasificación de las ofertas:

- AMPER SISTEMAS SA, 70,717 puntos.
- ALTEL SLU, 64,370 puntos.
- TRADIA TELECOM SAU, 61,877 puntos.
- AXION INFRAESTRUCTURAS DE TELECOMUNICACIONES SAU, 53,126 puntos.
- ADTEL SISTEMAS DE TELECOMUNICACIÓN SL, 40,262 puntos.

Mediante Orden Foral 780/2020, de 14 de mayo, de la Diputada Foral titular del Departamento de Gobernanza, se resolvió concluir el acuerdo marco con la empresa AMPER SISTEMAS SA.

**CUARTO.-** ALTEL SLU interpone recurso especial en el que solicita que se anule dicha resolución, se retrotraigan las actuaciones, se excluya del procedimiento a la empresa adjudicataria y se adjudique el acuerdo marco a la proposición más ventajosa siguiente.

Sostiene que la oferta de la adjudicataria no garantiza la interoperabilidad de la infraestructura fija tal como exige el PPT, por lo que debió ser excluida por infringir dicho pliego.

El informe emitido acerca del recurso por la Ingeniera de Telecomunicaciones del Servicio de Conservación y Gestión Vial del Departamento de Infraestructuras Viarias y por el propio Jefe del Servicio señala que la interoperabilidad de la red de comunicaciones móviles digitales es, según el



elkarreragingarritasuna sistemaren ezaugarri bat da, eta ez nahitaez bete beharreko gutxieneko baldintza bat.

Esleipendunak errekurtsoa ezestea eskatu du, errekurtsogileak ez duelako argudio sendorik edo frogarik aurkeztu bere eskaintzak preskripzio teknikoen agiria urratzen duela egiaztatzeko. Dioenez, elkarreragingarritasunaren gaia ebaluatu egin zen «proba pilotua» adjudikazio irizpidean, eta adjudikaziodunak 4,3 puntu lortu zituen 5 puntu posibleen gainean.

TRADIA TELECOM SAU enpresak, eskaintzak sailkatzeko ordenan hirugarrenak, errekurtsogilearen argudioekin guttiz ados dagoela adierazi du, eta alegazio idazkian zehaztu du bere ustez adjudikaziodunaren eskaintzaren beste ez-betetze batzuk direla, eta, bere ustez, prozeduratik kanpo uzteaz gain, ezin dute beste ondorioz izan. Errekurtsogileak bezala, errekurritutako ebazpena baliogabetzeko eskatzen du.

Ez-betetze horiei buruzko alegazioak eta TRADIA TELECOM SAUren idazkian jasotako uzia ez dira kontuan hartuko, errekurtsogileak errekurtso berezian duen jarrerari baitagozkio, eta ALTELeK baino ez du posizio hori, eta ez TRADIAk.

Hain zuzen ere, kontratazio arloko errekurtso bereziaren errekurtsogilea izateko, errekurtsoa garaiz eta behar bezala aurkeztu behar da, SPKLn ezarritako baldintzak betetz, batez ere 48., 50., eta 51. artikuluetan ezarritakoak. Ezin da errekurtsogile izatea lortu beste batzuek hasitako errekurtso batean agertze hutsagatik.

Gainerako interesdunen alegazio izapideak (SPKL, 56.3 artikulua) entzunaldia bermatzeko konstituzio aginduari erantzuten dio [Konstituzioaren 105 c) artikulua], baina ez die halako aurkaratze bide alternatiborik ematen.

PPT, una característica del sistema susceptible de valoración, no un requisito mínimo de obligado cumplimiento.

La adjudicataria solicita la desestimación del recurso porque la recurrente no aporta argumentos sólidos o pruebas que acrediten que su oferta incumple el PPT. Afirma que la cuestión de la interoperabilidad fue objeto de evaluación en el criterio de adjudicación “*prueba piloto*”, en el que la adjudicataria obtuvo 4,3 puntos sobre 5 posibles.

TRADIA TELECOM SAU, tercera en el orden de clasificación de las ofertas, expresa su total conformidad con los argumentos de la recurrente y detalla en su escrito de alegaciones lo que considera que son otros incumplimientos de la oferta de la adjudicataria, los cuales no pueden tener, en su opinión, otra consecuencia que la exclusión del procedimiento. Al igual que la recurrente, termina solicitando que se anule la resolución recurrida.

Las alegaciones sobre esos otros supuestos incumplimientos y la pretensión contenida en el escrito de TRADIA TELECOM SAU no van a ser tomadas en consideración porque corresponden a la posición de recurrente en el recurso especial, la cual solo ostenta ALTEL, no TRADIA.

En efecto, la condición de recurrente en el recurso especial en materia de contratación solo puede adoptarse mediante la interposición del mismo en tiempo y forma, cumpliendo los presupuestos establecidos en la LCSP, particularmente en sus artículos 48, 50 y 51. No puede alcanzarse por la simple comparecencia en un recurso iniciado por otros.

El trámite de alegaciones de los restantes interesados (artículo 56.3 LCSP) obedece al mandato constitucional de garantizar su audiencia [artículo 105 c) de la Constitución], pero no les concede una suerte de vía de impugnación alternativa.



**BOSGARREN.-** Preskripzio teknikoen agiriaren 3.2.3. atalak honako hau dio: **QUINTO.-** El apartado 3.2.3 del PPT dice así:

“3.2.3. Sarearen eta terminalen arteko elkarreragingarritasuna

*DMR teknologiaren arte egoera kontuan izanik, hornitutako terminalek nahitaez eskainitako DMR azpiegitura hornitzen duen fabrikatzaile berarenak izan beharko dute, estandarraren nahitaezko oinarri funtzionalitateen bateragarritasuna bermatzeko, nahitaezkoak ez diren funtzionalitate estandarrek baliatzeko, eta, estandarrek ez izanik ere, sistemaren operatibarako interesgarriak izan litezkeenak instalatzeko.*

*Dena dela, estandarrarekin den bateragarritasun-maila balioesteko eta teknologiaren hornitzailearen ahalegina eta konpromisoa neurtzeko estandarrekin eta sare irekiekin, lizitatuzaileek elkarreragingarritasuna bermatu beharko dute Komunikazio Mugikor Digitalen Sarearen eta merkatuan diren enpresa fabrikatzaileen irratik terminal ahalik eta gehien artean. Zehaztuko dituzte, era berean, elkarreragingarritasun probak gainditu dituen terminal bakoitzaren mota, modeloa eta bertsioa –eta, horrenbestez, sarean etorkizunean erabiltzeko gauza izango direnak–, Gipuzkoako Foru Aldundiaren funtzionalitateak estaltzen dituztela iriztitakoan.*

*Hartara, lizitatuzaileek zehaztuko dute eskaintzetan zer arau, zehaztapen edo estandarrek ezartzen dituen planteatutako sare azpiegitura finkoaren elkarreragingarritasun baldintzak, erabiltzaile propioen eta kanpoko terminalen aurrean.*

*Horrez gain, elkarreragingarritasun ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, egiaztatzeko bateragarriak direla lizitatuzaileek eskainitako irratik terminalak proposatutako sare azpiegitura finkoarekin, baita beste enpresa fabrikatzaileen azpiegiturekin ere”.*

Aurrekotik, errekurtsogileak ondorioztatzen du azpiegitura finkoaren elkarreragingarritasuna *sine qua non* baldintza teknikoa dela, eta egiaztatu beharreko gutxieneko baldintza tekniko bat, eta, aitzitik, gehiago edo gutxiago, neurri handiagoan edo txikiagoan, bateragarri izatea baloratu edo puntuatu egingo dela.

«Sare plangintza eta sare ingeniaritza» adjudikazio irizpidearen barne, klausula administratibo partikularren agiriak «emandako sistemaren ezaugarriak» azpi-irizpidea zehazten du, horren arabera, 0 eta 9 puntu artean emango zaizkie ezarritako gutxienekoak gainditu eta kontratuari

“3.2.3. Interoperabilidad de la Red con Terminales

*Dado el estado del arte de la tecnología DMR, y de cara a garantizar la compatibilidad de las funcionalidades base obligatorias del estándar y beneficiarse de las funcionalidades estándar no obligatorias y aquellas no estándar pero que puedan resultar de gran interés para la operativa del sistema, los terminales suministrados deberán ser forzosamente de la misma empresa fabricante que suministre la infraestructura DMR ofertada.*

*No obstante, y de cara a valorar el nivel de compatibilidad con el estándar y el esfuerzo y compromiso del suministrador de la tecnología con los estándares y redes abiertas, las licitadoras deberán garantizar la interoperabilidad de la Red de Comunicaciones Móviles Digitales con el mayor número posible de terminales radio de las distintas empresas fabricantes existentes en el mercado. Especificarán, asimismo, el tipo, modelo y versión de cada uno de los terminales que hayan pasado las pruebas de interoperabilidad y que, por tanto, podrían ser utilizables en la red en un futuro cuando se considere que cubran las funcionalidades que precisa DFG/GFA.*

*De este modo, las licitadoras detallarán en sus ofertas bajo qué norma, especificación o estándar establece las condiciones de interoperabilidad de la infraestructura fija de red que plantea frente a terminales de usuario propios y ajenos.*

*Además, las licitadoras deberán presentar los certificados de interoperabilidad de los terminales radio ofertados con la infraestructura fija de red propuesta, así como con las infraestructuras de otras empresas fabricantes”.*

De lo anterior la recurrente deduce que la interoperabilidad de la infraestructura fija es requisito *sine qua non*, un requisito técnico mínimo a acreditar, y que, por el contrario, la compatibilidad con más o menos, en mayor o menor medida, será objeto de valoración o puntuación.

Dentro del criterio de adjudicación “*planificación de red e ingeniería de red*” el PCAP contempla el subcriterio “*características del sistema suministrado*”, en virtud del cual se valorarán entre 0 y 9 puntos aquellas características del sistema que, superando los mínimos establecidos, sean de interés por





balio erantsia emateko interesgarriak diren sistemaren ezaugarriei, honako alderdi hauek bereizita:

-Oinarri estazioa (puntuazioaren % 25).

-Nodo kommutadore nagusia eta kudeaketa teknikoko sistema (puntuazioaren %25).

-Terminalak (puntuazioaren % 25).

-Sistemaren baterako elementuak (puntuazioaren %25).

Azken alderdi horri dagokionez, eskaintzak balio judizio bidez ebalua daitezkeen adjudikazio irizpideen arabera baloratzeko txosten teknikoak, zeina 2020ko urtarrilaren 23an sinatu baitzuten, telekomunikazio ingeniariak eta Bide Artapeneko eta Kudeaketako Zerbitzuak IDOM enpresaren laguntza teknikoarekin, honako hau jasotzen du:

–«Sistemaren baterako elementuak (puntuazioaren %25): sistemaren deskribapen orokorra eta haren produktuak baloratzen dira, baita terminalen elkarreragingarritasuna ere. Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat oso garrantzitsua da konponbidearen elkarreragingarritasuna hainbat fabrikatzaileekin. Hori kontuan hartuta, sistemako baterako elementu guztiak estaltzen dituen eta bateragarriena den eskaintza (bi fabrikatzaile baino gehiagoko terminalekin bateragarria) 25 punturekin baloratzen da (ALTEL). Bi fabrikatzaileekin bateragarria bada, 20 punturekin baloratuko da (ADTEL eta TRADIA). Beste edozein fabrikatzaileekin bateragarria ez bada, baina sistemaren deskribapen orokorra ulergarria eta argia bada, 10 punturekin baloratuko da (AMPER). AXIONen eskaintza bateragarria da bi fabrikatzaileekin, baina azalpenak ez ditu sistemaren baterako elementu guztiak barne hartzen; beraz, 7,5 puntu eman zaizkio».

Txostenaren zati horren arabera, ALTEL SLUrentzat «argi dago AMPER-en eskaintza, adjudikaziodunarena, ez dela bateragarria, ez dela elkarreragingarria. Bateragarritasun gehiago edo gutxiago izateak eragina izan behar du balorazioan edo puntuazioan (preskripzio teknikoaren eta administrazio klausulen agiriaren aurreikusten den bezala), bateragarria ez izatea, bateragarritasun edo elkarreragingarritasun hori ez egiaztatzeak esan nahi du bateragarritasun edo elkarreragingarritasun hori ez dela bermatzen, eta beraz, ez

aportar un valor añadido al contrato, diferenciándose los siguientes aspectos:

-Estaciones base (25% de la puntuación).

-Nodo conmutador central y sistema de gestión técnica (25% de la puntuación).

-Terminales (25% de la puntuación).

-Elementos conjuntos del sistema (25% de la puntuación).

Por lo que concierne a este último aspecto, el informe técnico de valoración de las ofertas en función de los criterios de adjudicación evaluables mediante juicio de valor, suscrito el 23 de enero de 2020 por la Ingeniera de Telecomunicaciones y por el Jefe del Servicio de Conservación y Gestión Vial del Departamento de Infraestructuras Viarias, con la asistencia técnica de la empresa IDOM, recoge lo siguiente:

“-Elementos conjuntos del sistema (25% de la puntuación): se valora la descripción general del sistema junto con sus productos, así como la interoperabilidad de los terminales. La interoperabilidad de la solución con distintos fabricantes es de suma importancia para la Diputación Foral de Gipuzkoa. Teniendo eso en cuenta, la oferta que cubre todos los elementos conjuntos del sistema y es la más compatible (compatibilidad con terminales de más de dos fabricantes) se valora con 25 puntos (ALTEL). Si es compatible con dos fabricantes se valora con 20 puntos (ADTEL y TRADIA). Si no es compatible con ningún otro fabricante, pero la descripción general del sistema es comprensible y clara, se valora con 10 puntos (AMPER). La oferta de AXION es compatible con dos fabricantes, pero la explicación no cubre todos los elementos conjuntos del sistema, por lo que se puntúa con 7,5 puntos”.

A tenor de ese fragmento del informe, para ALTEL SLU “resulta evidente que la oferta de AMPER, adjudicataria, no es compatible, no es interoperable. El hecho o dato de ser más compatible o menos sí debe incidir en la valoración o puntuación (tal y como se prevé en el pliego de prescripciones técnicas y cláusulas administrativas), pero no ser compatible, ni acreditar dicha compatibilidad o interoperabilidad, supone no garantizarla, no garantizar el requisito exigido por las prescripciones técnicas (cláusula 3.2.3) y, por ello, su exclusión por



*dela bermatzen preskripzio teknikoek eskatzen duten baldintza (3.2.3 klausula), eta, beraz, baldintza agiria urratzeagatik lizitaziotik kanpo geratuko dela».* *infringir el pliego”.*

**SEIGARREN.-** Adjudikaziodunak eskaintako sistema osoa MOTOROLA SOLUTIONS enpresak garatu eta fabrikatutako ekipamendu batek osatzen du.

AMPER-ek egiaztatu du eskaintako irradi terminalak proposatutako sareko azpiegitura finkoarekin eta beste enpresa fabrikatzaile batzuen azpiegiturekin elkarreragingarriak direla. Baina ez du egiaztatzen (MOTOROLAK) proposatzen duen sareko azpiegitura finkoaren eta MOTOROLA ez diren fabrikatzaileen irradi terminalen arteko elkarreragingarritasuna.

Azken horri egiten dio erreferentzia preskripzio teknikoen agiriak 3.2.3 atalean. Hori dela eta, eskaintzen balorazio txostenak arrazoi osoz adierazten du AMPER-ek eskaintako sistema «*ez dela bateragarria beste edozein fabrikatzailearekin*».

AMPER-ek dioenaren kontrara, «*proba pilotua*» adjudikazio irizpidean lortutako puntuazioak ez du zerikusirik elkarreragingarritasunaren gaiarekin; izan ere, ikusi dugunez, horren ebaluazioa «*sarearen plangintza eta sare ingeniaritza*» irizpidean egin zen, eta, horren barruan, «*emandako sistemaren ezaugarriak*» azpi-irizpidean.

Abiapuntutzat hartuta adjudikaziodunak ez duela egiaztatu proposatzen duen sare finkoko azpiegituraren eta beste fabrikatzaile batzuen irradi terminalen arteko elkarreragingarritasuna, eztabaidagaia da zehaztea ea, esparru hitzarmenaren baldintza agirien arabera, ezaugarri hori betekizun gisa hartu behar den, eta baldintza hori ez betetzeak lizitatzailerak kanporatzea ekarri behar duen, errekurtsogileak dioten bezala; edo, bestela, klausula administratibo partikularren agirian ezarritako adjudikazio irizpideen arabera baloratu daitekeen ezaugarri bat den, kontratazio organoak defendatzen duen bezala.

**ZAZPIGARREN.-** Egia esan, preskripzio

**SEXTO.-** La totalidad del sistema ofertado por la adjudicataria está compuesto por un equipamiento desarrollado y fabricado por MOTOROLA SOLUTIONS.

AMPER acredita la interoperabilidad de los terminales radio ofertados con la infraestructura fija de red propuesta, así como con las infraestructuras de otras empresas fabricantes. Pero no acredita la interoperabilidad de la infraestructura fija de red que propone (de MOTOROLA) con terminales radio de fabricantes distintos de MOTOROLA.

Es a esto último a lo que se refiere el PPT en su apartado 3.2.3. Y es por eso por lo que el informe de valoración de las ofertas señala, con razón, que el sistema ofertado por AMPER “*no es compatible con ningún otro fabricante*”.

Contrariamente a lo que afirma AMPER, la puntuación obtenida en el criterio de adjudicación “*prueba piloto*” no guarda relación con la cuestión de la interoperabilidad, cuya evaluación se llevó a cabo, como hemos visto, en el criterio “*planificación de red e ingeniería de red*”, y, dentro de él, en el subcriterio “*características del sistema suministrado*”.

Partiendo del hecho de que la adjudicataria no ha acreditado la interoperabilidad de la infraestructura de red fija que propone con terminales radio de otros fabricantes, la cuestión controvertida consiste en determinar si, a tenor de los pliegos del acuerdo marco, esa característica debe considerarse como un requisito cuya ausencia deba suponer la exclusión del licitador, como sostiene la recurrente; o si se trata, más bien, de una cualidad susceptible de valoración de acuerdo con los criterios de adjudicación establecidos en el PCAP, como defiende el órgano de contratación.

**SÉPTIMO.-** Ciertamente, la redacción del



teknikoen agiriaren 3.2.3. atalaren idazketa anbigua da, eta nahasmena sor dezake, errekurtso honetan aurre aurre dauden interpretazioek erakusten duten bezala.

Atal horren hasieran eskatzen da «*hornitutako terminalek eskainitako DMR azpiegitura hornitzen duen enpresa fabrikatzaile berarenak izan behar dutela nahitaez*». Hori bai, nahitaezko baldintza da lizitatuzaileentzat. Ez betetzea bai izango litzateke eskaintzatik kanpo uzteko arrazoia.

Premisa horretatik abiatuta, hurrengo paragrafoak aurreikusten duena da lizitatuzaileak eskaintzen duen komunikazio mugikor digitalen sarearen eta merkatuan dauden beste fabrikatzaile batzuen irrati terminalen arteko bateragarritasun maila baloratuko dela («*balioesteari begira*» esaten du hitzez hitz), ahalik eta hobekien («*ahalik eta kopuru handienarekin*»). Eta balorazio hori egin ahal izateko, lizitatuzaileek zehaztu beharko dute elkarreragingarritasun probak gaintitu dituen terminal bakoitzaren mota, eredia eta bertsioa; beraz, etorkizunean erabili ahal izango dira Gipuzkoako Foru Aldundiak behar dituen funtzionaltasunak betetzen dituztela uste denean.

Testuinguru horretan, «*bermatu beharko dute*» esamoldearen erabilera ez da egokia, jakina, eta nahasmena eragiten du.

Hala ere, hori ez betetzeak lizitatuzaile bat baztertzea eragin ahal izateko, baldintza agiritan eskatzen diren eskakizun teknikoek, gardentasun printzipioari jarraiki, argi eta garbi adierazi behar dute, zalantzarik gabe, nahasmenik sortu gabe, eta hemen ez da halakorik gertatzen.

Ondoren eskaintzen balorazio txostena eta errekurtso horri buruzko txostena idatzi duten funtzionarioek sinatu dituzte esparru akordioaren preskripzio teknikoen agiriak. Beraz, preskripzio teknikoen agiriaren 3.2.3 atalaren benetako interpretazioa hartu behar dugu kontuan, hau da, egileek berek egiten dutena. Horren arabera, elkarreragingarritasuna ez da sistemaren

apartado 3.2.3 del PPT es ambigua y puede dar lugar a confusión, como lo demuestran las distintas interpretaciones que se enfrentan en este recurso.

Dicho apartado empieza exigiendo que “*los terminales suministrados deberán ser forzosamente de la misma empresa fabricante que suministre la infraestructura DMR ofertada*”. Este sí es un requisito obligatorio para los licitadores. Su incumplimiento sí sería motivo de exclusión de la oferta.

A partir de esa premisa, lo que contempla el párrafo siguiente es que se valorará (“*de cara a valorar*”, dice textualmente) el nivel de compatibilidad de la red de comunicaciones móviles digitales ofertada por el licitador con terminales radio de otros fabricantes existentes en el mercado, cuantos más mejor (“*con el mayor número posible*”). Y para que se pueda llevar a cabo esa valoración las licitadoras especificarán el tipo, modelo y versión de cada uno de los terminales que hayan pasado las pruebas de interoperabilidad y que, por tanto, podrían ser utilizables en un futuro cuando se considere que cubren las funcionalidades que precisa la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En ese contexto, el uso de la expresión “*deberán garantizar*” no es afortunado, desde luego, e induce a confusión.

No obstante, para que su incumplimiento pueda producir la exclusión de un licitador los requisitos técnicos exigidos en los pliegos deben, en virtud del principio de transparencia, estar claramente formulados como tales, en términos inequívocos que no den lugar a confusión, cosa que aquí no sucede.

Los pliegos de prescripciones técnicas del acuerdo marco vienen firmados por los mismos funcionarios que posteriormente han redactado el informe de valoración de las ofertas y el informe sobre este recurso. Hemos de atenernos, por tanto, a la interpretación auténtica de este apartado 3.2.3 del PPT, es decir, la que hacen los propios autores, conforme a la cual la interoperabilidad no





nahitaezko ezaugarria, automatikoki ebaluatu ezin diren adjudikazio irizpideen barruan balora daitekeen alderdi bat baizik, eta halaxe baloratu da.

Teknikari horien txostenaren arabera, «soluzioak bete beharreko gutxieneko baldintzak baldintza agiri teknikoaren 3.3.1 atalean ezartzen dira, eta elkarreragingarritasuna ez da adierazten bete beharreko gutxieneko betekizuntzat».

Horregatik guztiagatik, Auzitegiak uste du ez dela bidezkoa enpresa adjudikazioduna prozeduratik kanpo uztea.

**ZORTZIGARREN.-** Ez da antzeman fede txarrik edo ausarkeriarik errekurtsoa aurkeztean, Auzitegia errekurtsogileari isun bat jartzera eraman dezakeena, SPKLak 58.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Ondorioz, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratibo honek

### **EBAZTEN DU**

**LEHENA.-** Ezestea ALTEL SLU enpresak aurkeztutako kontratazio alorreko errekurtso berezia.

**BIGARRENA.-** Adjudikazio egintzaren etenaldea indargabetzea.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

es una característica obligatoria del sistema, sino un aspecto valorable dentro de los criterios de adjudicación no evaluables de forma automática, y como tal ha sido valorado.

A tenor del informe de estos técnicos, “los requisitos mínimos a cumplir por la solución se establecen en el apartado 3.3.1 del pliego técnico, y la interoperabilidad no se indica como requisito mínimo a cumplir”.

Por todo ello, el Tribunal considera que no procede excluir del procedimiento a la empresa adjudicataria.

**OCTAVO.-** No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a la recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 58.2 LCSP.

En su virtud, este Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

### **ACUERDA**

**PRIMERO.-** Desestimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por ALTEL SLU.

**SEGUNDO.-** Levantar la suspensión del acto de adjudicación.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia, 2020ko irailaren 24a / San Sebastián, 24 de septiembre de 2020.**